



2020-2021 IKASTURTEAN IKASGELAK IREKITZEA NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA

Hitzaurrea

Ikastetxeak Nafarroako Foru Komunitatean irekitzeko estrategia antolatzeko, hezkuntzan **esparru plan bat** ezarri behar da. Plan hori berariaz prestatuko da, jarduera geldiarazteak izan dituen ondorioei aurre egiteko eta hezkuntza jarduera berrabiaraztea ahalbidetzeko. Ikastetxeetara itzultzean, gutxienez **oinarrizko sei helburu** bete beharko lirateke:

- a) **mailakako itzulera sekuentziala planifikatzea, irailetik ikasturtea amaitu arte.** Itzulera horri begira, osasun bermeak bete beharko dira zorrotz, eta, testuinguru horretan, itxialdia berriro ezarri gero jarraitu beharreko estrategiak planifikatu beharko dira.
 - erakunde eskudunek COVID-19ari lotuta ezarri dituzten zuzentarau eta neurri higieniko-sanitario guztiak betetzea etengabe eta modu iraunkor batean. Horrela, bermatu egingen dira bai ikasleen segurtasuna, bai irakasleen eta irakasle ez diren langileen segurtasuna, baita ikastetxeko jarduerari luzaroan edo aldian behin lotutako beste edozein lagunena ere.
 - ikastetxea abian jarri baino lehen, hezkuntza eta administrazio arloko edozein jarduerari lotuak egoten ahal diren instalazioak eta elementu material guztiak osorik desinfektatzea eta behar bezala egokitzea.
 - mailakako itzulera sekuentzialerako plan bat prestatzea. Horren estrategiek eta jarduketek 2020-2021 ikasturteko prestatze lanak hasi eta ikasturtea amaitu arte iraunen dute. Kontuan hartuko da beti litekeena dela alarma-egoera berriro deklaratu behar izatea, zeinak berekin ekarriko bailuke itxialdia ezartzea eta ikastetxeetan aurrez aurreko jarduera etetea.
- b) **klaustroen antolaketa lana berrezartzea**, bai itzulera, bai ikasturte amaierara arteko irekialdiko koordinazio pedagogikoa prestatzeko.
- c) **berriz elkartzeko unearen harrera antolatzea eta irekialdian eta ikasturtea amaitu arte laguntza tutoriala eta emozionala bermatzea.** Alde horretatik, Tutoretza Ekintzako Planean hezkuntza emozionalerako berariazko jarduera batzuk jasoko dira, egoerak ikasleengan eragin dituen efektu kaltegarriak arintzeko gauzatuko direnak.
- d) **hezkuntza eta ikasketa lotura berregitea, ikaskuntzako eta ebaluazioko jarduera estrategiko eta funtsezkoetan kontzentratzeko, ahal bezain arrunta den formatu batean, edo, bestela, jarduera presentzialak eta online irakaskuntza txandakatuz argi eta garbi.** Kasu horretan, kontuan

hartuko da ikasleen eta irakasleen ordu akademikoen guztizko zenbaketak ez duela gainditzen arau orokor gisa aurreikusitakoa.

Orain arte egindakoak eta une honetatik aurrera egingen denak baliagarriak izan behar dute hurrengo ikasturtea diseinatzeko. Abiapuntu gisa ikusten dugu. Azken bi hilabeteetan ikastetxeak estrategiak eta materialak prestatzen eta diseinatzen aritu direnez, departamentuak material horiek bildu, eta hezkuntza komunitate osoaren eskura jar ditzake.

Hezkuntzak (guk ulertzen dugun moduan, behintzat) kontaktua eskatzen du: irakasleen, ikasleen eta familien arteko harremana behar du, eta, azken batean, aurrez aurreko lana eskatzen du ikasgelan. 2019-2020 ikasturtearen amaieran, salbuespenezko egoera bat konpondu dugu, besterik ez, horrek eskatzen zuen presarekin. Online hezkuntzarako proposamena landu egin behar da, 2020-2021 ikasturtean aurrera egiteko eta zehaztasun handiagoz ezartzeko. Horretarako, giza baliabideez eta baliabide materialez hornitu behar da. Bestela, ezin izanen dira inola ere parekatu online hezkuntza eta aurrez aurrekoa.

Ikasgeletara itzultzeak ez du utziko ikasgeletan erabateko normaltasuna berreskuratzen, eta, ikastetxeentzat, berriz elkartzeko eta barne funtzionamendua berrantolatzeko aldi berezia izanen da. Lehentasuna eman behar zaio ikasleen harrera sozioemotionalari. Osasun arloko baldintzak direla eta, aldi hau ez da ohiko eskolaldi arrunt bat izanen, mugak baititu; alegia, inprobisazioak saihesteko egoki planifikatu eta antolatu beharreko mugak.

Horregatik, ezinbestekoa da **itzulera plan bat diseinatzea**, **esparru ezaugarri batzuk, administrazio jarduketako plan bat eta zenbait ildo pedagogikoko biltzeaz gain, ikastetxera itzultzeko modua antolatzen duena.**

Maiatzean egiten ditugun gomendio guztiak **nahitaez berrikusi behar dira**, hurrengo hilabeteetan gertatzen diren berrikuntzen arabera; izan ere, datozen denboretako beharretara egokitu beharko da duela aste gutxi batzuk pentsaezina zena. Espazioak, denborak, edukiak, metodologiak, hezkuntza materialak eta abar egokitu behar ditugu beste sektore batzuetarako planteatzen diren arau eta gomendioen arabera.

Aurreko ikasturtean eskuratu gabeko ezagutzak indartu behar dira, eta lehen hiruhilekoaren zati bat hutsuneak betetzen eta ikaskuntzan dauden akatsak konpontzen eman behar da. Oso lagungarria izanen litzateke ezagutza batzuk berenganatu ez dituzten ikasleak erreskatatzeko baliabideak ahalbidetzea, eskola porrota mantendu edo areagotu ez dadin.

Irailean ikastetxeak berriro irekitzeko oso kontuan hartu beharreko faktoreak

- Ikasleen, irakasleen eta irakasle ez diren langileen segurtasun eta prebentzio sanitarioko berme jasangarri eta errealak (maskarak, gelak, higiena, testa, termometroak...).

- Espazioak eta ikasgelak egokitzea eta desinfektatzea. Haur eta Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta helduen zentroetako garbiketa iraunkorra udalen esku dago. Horrek esan nahi du, higiene eta desinfekzio neurri etengabeak eusteko, behar adina garbitzaile egon beharko liratekeela lanaldian zehar.
 - Mugikortasuna eta eskola garraioa.
 - Sarrerako eta irteerako protokoloak. Horiek mailakatu egin beharko dira, pilaketak saihestuz. Ikastetxeen autonomiaren barruan, prebentzioko teknikarien aholkularitza jasotzen ahalko da, ikastetxe bakoitzeko ibilbideak eta espazioen erabilerak "in situ" ezartzen laguntzeko.
 - Irakaskuntza presentziala eta online irakaskuntza txandakatzen dituzten txandak eta ordutegiak antolatzea. Online irakaskuntzak aukera berdintasuna bermatu behar du. Lehenetsuna eman behar zaio ikasleen bertaratzeari. Online irakaskuntza egiteko aukera kontuan har liteke, baldin eta Administrazioak berma badezake ez dela desberdintasunik egonen online irakaskuntza jasotzen duten ikasleen eta aurrez aurre jasotzen dutenen artean. Argi dago irakaskuntza presentzialesan oinarritzen dela gure sistema. Lanaldi jarraitua eta ordutegiaren kontzentrazioa aukera ona dira, eta, eskolaz kanpoko jardueren erabilerari dagokionez, lehenetsuna emanen zaie zerbitzuaren premia handiena duten ikasleei edo familiei.
 - Ikasleen gehieneko eta gutxieneko ratioak berdinak izatea bi sareetan, eta ikasle guztiak itzultzea planteatu ezin denean bakarrik.
 - Ikastetxeetako txantiloak antolaketa berrirako
 - Curriculumaren antolaketa. Oinarrizko gaitasunak zehaztea, aurrez aurreko ordutegia murriztu behar bada. Halaber, online irakaskuntzan eskuratu beharreko gaitasunak zehaztea.
 - Gizarte distantziari buruzko jarraibideak (txikienek zailtasunak dituzte horiek errespetatzeko)
 - Jantokiak antolatzea.
 - Salbuespena arrisku patologiak dituzten irakasleentzat eta langileentzat, bi sareetan.
 - Ikastetxe guztietako profesionalen eta familien familia kontziliazioa.
 - Irakasleen eta zerbitzuetako langileen lan-karga ez handitzeko behar diren baliabideez hornitzea.
 - Profesionalen eta ikasleen higiene pertsonaleko errutinak ezartzea, bai eta material, tresna, altzari... komunak eta indibidualak manipulatzekoak ere.
 - Neurriak eta protokoloak egokitzea arrisku patologiak dituzten ikasleentzat.
 - Aniztasunaren arreta ziurtasun osoz bermatzea, bai profesionalentzat, bai ikasleentzat. Aurreikustea koronabirusaren krisia ikasleen arteko aldea areagotzen duen beste faktore bat dela, eta profil berri hori gehitzea aniztasunaren arretarako beharrezanetan.
 - Derrigorrezko hezkuntzan, familiei baliabide teknikoak eman behar zaizkie hezkuntza ez-presentziala errazteko; izan ere, ez dute beti gailu elektronikorik izaten bakoitzarentzat. Baita ikasleen talde zehatz bati –eta ez guztiei– hezkuntza erantzuna lehenestera behartzen duen egoera bat agertzen den ere, derrigorrezkoa ez den hezkuntza batean.
-

2. Espainiako egoera

Kontuan hartuta ikasleak irailean itzuliko direla eskolara, salbuespenak salbuespen. Ikasgeletan egonen dira, alde batetik, titulu bat (Batxilergoa, DBH edo LH) lortu nahi dutenak –hala nahi badute–, eta, beste aldetik, etxean lan egiten ez duten gurasoak dituzten sei urtetik beherakoak.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak (MEFP) eta autonomia erkidegoek lantalde bat sortu dute 2020-2021 ikasturtearen garapenari ekiteko. Hala erabaki da Isabel Celaá ministroa buru duen Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean, non autonomia erkidego guztietako kontseilariek hartu duten parte.

- Jarduketa planak prestatuko dira, eta horiek prest egon behar dute udako oporrak baino lehen.
- Hiru agertoki posible landuko dira, COVID-19k eragindako pandemiaren bilakaeraren arabera.
- MEFP digitalizazioa indartzeko plan bat prestatzen ari da Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioarekin batera.

Pandemiaren bilakaeraren balizko agertokiak

Orientazioen dokumentua udako oporrak hasi baino lehen egin beharko da, eta hiru egoera hauek hartuko ditu kontuan:

1. Pandemiaren bilakaerari esker, hezkuntza jarduera modu presentzialean egin ahal izatea ikastetxeetan, pertsonen arteko distantziari eutsi beharrik gabe.
2. Pandemiaren bilakaerak ikastetxe guztietan pertsonen arteko distantziari eustera behartzen jarraitzea, kutsatzeak saihesteko prebentzio neurri gisa.
3. Pandemiaren bilakaerak galaraztea hezkuntza jarduera presentziala 2020-2021 ikasturteko uneren batean garatzea, berriro konfinatzera behartzen duen gaixotasunaren biragerraldiren baten ondorioz.

Kasu guztietan, beharrezkoa izanen da ikasmaita, arlo eta ikasgaien curriculumak eta programazioak egokitzea, oinarriko gaitasunetan arreta berezia jartzeko eta 2020ko martxoan aurrez aurreko hezkuntza jarduera bat-batean eteteak eragindako aldaketa handiaren ondorioz sortu diren gabeziak berreskuratzeko.

Pandemiaren bilakaerak pertsonen arteko distantziari eustera behartzen jarraitzen badu eta, beraz, ezinezkoa bada talde eta hezkuntza etapa bereko ikasle guztiak gela berean kontzentratzea, hainbat neurri hartu beharko liriateke, hala nola ikastetxeko espazio guztiak optimizatzea, aurrez aurreko jarduera urrutiko jarduerarekin konbinatzea, edo ordutegiak egokitzea ezarritako osasun baldintzak betetzeko eta prestakuntzaren jarraitutasuna bermatzeko.

Egoera horrek, gainera, honako hauek eskatuko lituzke: ikastetxeetako langileak eta ikasleak ekipamendu higieniko-sanitarioaz hornitzea; higieneko eta osasun kontroleko neurriak ezartzea; mugikortasun protokoloak prestatzea ikastetxera sartzeko eta handik ateratzeko, bai eta barnean ibiltzeko ere; eta irakasleei eta irakasle ez diren langileei eta ikasleei ezarritako betekizun higieniko-sanitarioei buruzko prestakuntza ematea.

Nolanahi ere, urrutiko eta online irakaskuntzarako hezkuntza eduki eta jarduera egokiak programatu beharko dira, eta ikasturtearen zatien balizko ebaluazio ez-presentzialerako aurreikuspenak egin beharko dira. Horretarako, ikasturte honetan eskola jarduerako hilabeteetan garatu diren jardunbide egokiak baliatuko dira.

Halaber, beharrezkoa izanen da ikastetxeei ekipamendu teknologikoa ematea eta lineako baliabideak erabiltzeko prestakuntza intentsiboko jarduerak garatzea irakasleentzat, bai eta tresna eta plataforma digitalak erabiltzeko prestakuntza planak diseinatzea ere ikasleentzat.

Horren harira, Isabel Celaa Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroak iragarri du MEFP Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioarekin lanean ari dela lurralde lankidetzarako programa bat diseinatzeko, digitalizazioan aurrera egiteko baliabideak handitzeko aukera emanen duena. Baliabide eta gaitasun digitalak indartu nahi dira, bai plataformen bidez, bai irakasleen erabilera pertsonalerako eta prestakuntzarako gailuen bidez.

Urrutiko hezkuntza jarduerarako, jarraipen eta laguntza planak diseinatuko dira eskola jardueraren modalitate horri jarraitzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat.

3. Berrirekitzea antolatzeko jarraibide gomendatuak

Hezkuntza Departamentuak iragarri duenez, Osasun Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zeresan handia izanen dute beti arlo horretan.

Irizpide horiek ikastetxearen tamainaren arabera aztertu beharko dira; izan ere, tamainak bereziki eragiten die irakaskuntza guztiak eskaintzen dituzten sare itunduko ikastetxeei.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, aintzat hartu behar da ordutegi handiena duen hezkuntza presentziala lehenestea.

Erronka bat abiatzen da, baina garaiz iritsi behar da, hau da, ahalik eta lasterren. Horregatik, garrantzitsua da lehenestea aztertzea eta Hezkuntza Departamentuak baliabideak bideratzea online hezkuntza plana orientatzeko, ikasturte hau amaitu baino lehen. Horrela, prest egonen gara hurrengo ikasturtean jauzi bat eman ahal izateko, eta egokituak ere bai, etor daitekeenerako (beste itxialdi bat beharrezkoa izanen delako ustea). Planak baliabideak homogeneizatzea eta irakaskuntza online antolatzea lortu beharko du, ikaskuntzaren eraginkortasuna maximizatuta eta

eraginkortasuna arrazionalizatuta (kostu ekonomikoa, publikoa zein familia, eskatutako maila eta tresnak lortzeko).

Halaber, tresnak ez ezik, online eskolak antolatzeko formula berriak ere eman behar dira; ahalik eta parte-hartze handiena sustatu behar da; curriculum eta edukia egokitu behar dira; ikasleekiko tratua sustatu behar da; banakako ikaskuntzaren jarraipena egin behar da; eta ikastetxeei, irakasleei eta familiei laguntzeko jarraibideak garatu beharko dira, antolamendu mailan eredu aldaketa hori errazteko.

Eten digitalaren eragina arintzeko, egokiena izanen da gabezia hori maileguko baliabideekin estaltzea eta, birmoldaketa horretan, guztiengana iristeko aukerak erabiltzea, baita online erritmoari jarraitu ezin dioten ikasleengana ere, bitarteko tradizionalak erabiliz eta haiekin telefono bidezko jarraipena eginez urrutiko eremuan sartu arte.

Behe-mailen eta etapa amaierako mailen aldi bereko itzulerak **irakaskuntza presentziala eta urrutiko irakaskuntza konbinatzea** eskatzen du.

- a) Desinfekzioari, higieneari, prebentzioari, araei eta osasunari buruzko gomendioak.
- b) Curriculumari buruzko gomendioak eta eskuratu beharreko oinarriko eta nahitaezko gaitasunak.
- c) Ratioari, espazioei eta aurrez aurreko antolamenduari buruzko gomendioak.
- d) Langileei eta irakasleei buruzko gomendioak.
- e) Administrazio gomendioak.
- f) Kontziliazioaren arloko gomendioak.

Gomendio guztiak ezartzeko aukera badago, jarraibide edo ibilbide orri bati jarraitu behar zaio. Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Berriz Irekitzeko Plan baterako oinarriak prestatu beharko ditu; plan horrek orientagarria izan beharko du ikastetxeetako zuzendaritzentzat. Sekuentzialki, honako jarduketa hauek gomendatzen ditugu:

1. Hezkuntza Berriz Irekitzeko Plana, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko talde kudeatzaileek prestatua.
2. Higiene neurriak eta ikasle taldeen osaera diseinatzea eta argi eta garbi txertatzea. Arreta berezia jarri beharko zaie jolas-orduei, bai eta ikastetxeetako sarrerei eta irteerei ere. Ikastetxeetan jarduteko protokolo bat egon beharko litzateke, gune irekietan ere urruntzea bermatuko lukeena eta departamentuak onartuko lukeena.
3. Hezkuntzako elkarrizketa soziala hezkuntza komunitate osoarekin, erakunde sindikalekin eta guraso elkarteekin, zuzendarien elkarteekin eta hirugarren sektoreko elkarteekin, irekitzeko baldintzak zehazteko.
4. **Ikastetxe bakoitzak hezkuntza etapakako bere plana izan behar du, eta, Eskola Kontseiluak onartu ondoren, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura igorri beharko da.** Oso gomendagarria litzateke plan pedagogikoa ezartzeko,



egoera berrira ahalik eta gehien egokitzeko eta hezkuntza berrikuntza sustatzeko.

Koronabirusaren krisiak agerian utzi du egungo hezkuntza sistemak zailtasunak dituela etorkizun hurbilerako aurreikusi eta kudeatu beharreko eskakizun guztiei erantzuteko. Egungo egoera, konplexua izan arren, hezkuntza sisteman jarraibide berriak ezartzeko aukera gisa uler daiteke, sistema eguneratzen eta hezkuntza komunitate osoaren premiei erantzuten laguntze aldera.

Horregatik, hezkuntza berrikuntza sustatzeari dagokionez, zenbait neurri iradokitzen dira:

- Batzorde berezi bat sortzea, berrikuntza metodologikoko adituek (departamentukoak) eta hezkuntza komunitateko ordezkariak (zehazteke) osatua, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza sareari azaldu beharreko proposamen metodologiko bat/batzuk aztertu eta adosteko helburua izanen duena.
- Proposamen metodologiko horiek ikastetxeen eta irakasleen autonomia errespetatu behar dute, beren beharretara egokitzeko.
- Helburua izanen da ikasleen gaitasunak praktikan jar daitezen bultzatzea, eta ikasteko, aniztasunari arreta emateko eta ebaluatzeko eredu berriak ezartzea, krisiaren egungo egoeretara eta bizi dugun gizarte eta hezkuntza errealitatera hobeki egokituko direnak.
- Batzorde horrek irakasleak prestatzeko eredu berri bat ere aurreikus dezake, alde batetik, etengabe aldatzen ari den hezkuntza errealitate baterako prestatzen jarraitzeko aukera ematen diena eta, beste aldetik, baina aldi berean, lanpostuan garapen profesionala aurreikusten duten pizgarriak emanen dizkiena.

IKASTETXE BAKOITZERA ITZULTZEKO PLANAREN EGITURA

Plana prestatzeko eskema.

AURRETIKO ESKAKIZUNAK

Itzultzeko plana prestatu baino lehen, **ezinbestekoa da** zehatz-mehatz jakitea zein diren segurtasun eta higiene sanitarioko neurriak, eta zein diren **ildo ofizialek (OSASUNA) ezarri ahala bete beharko diren** babes eta prebentzio premisak. **Halaber, Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Berriz Irekitzeko Plan baterako oinarriak prestatu beharko ditu;** plan horrek orientagarria izan beharko du ikastetxeetako zuzendaritzentzat.

Egokia da ikastetxe bakoitzeko **Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratzea egiten den plana eta nola jartzen den abian ondoren**. Egin beharreko plana datozen hilabeteetan **sortzen diren arauetara egokitu beharko da nahitaez**, eta osasun

gomendioetara ere egokitu beharko da, hezkuntza munduaren eta gure gizarteko gainerako jarduera arruntan artean desorekarik gerta ez dadin, bai eta familia kontziliazioa eragozten duten hezkuntza arloko arau oso murriztaileak saihestu ere.

Hortik aurrera, egin beharreko planak **lau fase** bereizi behar ditu:

A FASEA. Plana diseinatzeko fasea. Komenigarria da plan osoaren koordinazioa, hasieratik amaierako ebaluazioa egin arte, kide anitzeko organo multiprofesional batean oinarritzea, jarraitu beharreko prozesu osoaren ahalik eta ikuspegi zabal, oso eta parte-hartzaileena bermatzeko. Organo hori honako hauek osatuko lukete: ZUZENDARITZA TALDEA, ORIENTATZAILEA, ETAPA BAKOITZEKO IRAKASLE BAT, IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN ARDURADUN BAT, OSASUN ARLOKO LANGILEAK, HALAKORIK IZANEZ GERO, ETA ESKOLA KONTSEILUKO GURASO ELKARTEAREN ORDEZKARI BAT.

B FASEA. Aurreikuspen logistikoak, intendentziakoak eta mantentzekoak egokitzeko eta ezartzeko fasea.

C FASEA. Aplikazio jarraituaren fasea. Horrek, aldi berean, funtsezko hiru eremu hartu behar ditu kontuan:

- C1. Ikasleei eta profesionaleri batera eragiten dien eremua.
- C2. Profesionaleri bakarrik eragiten dien eremua.
- C3. Beste pertsona batzuekiko harremanari eragiten dion eremua (familiak/legezko tutoreak, kanpoko eragileak, etab.).

Eremu horietako bakoitzean, jarraitu beharreko neurriak ezarri beharko lirateke 11 antolaketa ardatz kontuan hartuta. Hauexek dira:

1. **Ikastetxeko espazioekin eta inguruneekin lotutako neurriak.**
2. **Egutegiarekin eta ordutegiarekin lotutako neurriak.** Ikasturte arrunt bateko ordutegi ohikoenera egokitzen saiatuta.
3. **Ratioekin eta taldekatzeekin lotutako neurriak.** Ratioa murriztu eta taldeak ezarri behar badira, hezkuntza presentzialaren sisteman ikasle guztiek gutxieneko edukiak jasotzen dituztela bermatu beharko da. Langileak gehitzeko aukera hausnartu behar da, ikasleen garapen eta arreta ona ziurtatu ahal izateko.

Orain, inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da hezkuntza laguntzako berriazko premia duten ikasleen ehunekoaren eragina minimizatzea, aldeak ez daitezen areagotu krisialdi honetan. Horretarako, indartze eta arretarako bitartekoak jarriko dira ikastetxeen eta ikasleen eskura, aukera berdintasuna bermatzeko eta gizarte bazterketako arriskuan edo egoera ahulean dauden ikasleak gizarteratzeko.

4. Ikastetxeetako **plantilla egokitzeko neurriak**
5. **Elkarrekintzekin lotutako neurriak** (A eremuan bereiziko dira berdinen artean ezarritakoak eta ikasleen eta profesionalen arteko harremanetan berezkoak direnak), adibidez, maila sozioemozionalean, ikasleen osasun sozioemozionalari laguntzeko materialen gordailu bat sortuz Bizikidetza eta Hezkidetza Atalean, pandemiari buruzko jarduerak proposatzen dituzten tutoretza ekintzen planetarako.
6. **Eskaintako zerbitzuekin eta** garatu beharreko **jarduerekin lotutako neurriak.**
7. **Aplikaturako metodologiarekin eta prozedurekin lotutako neurriak.** Ikasle guztiak ikasgeletara itzuli ezin badira osasun neurri egokiak hartuta, curriculumaldatzeko aukera baloratu beharko da, curriculum salbuespenezko egoerara egokitzeko eta edukiak berrantolatzeke, aurrez aurreko hezkuntzan eta online hezkuntzan berme bereberekin eman ahal izan daitezke; izan ere, online irakaskuntzak ezin du berekin ekarri hori jasotzen duten ikasleak diskriminatzea.
8. **Hezkuntza helburuak dituen plataforma digital bat sortzearekin lotutako neurriak.** Lehentasunez jotzen da hura sortzea. Estandarra eta bakarra izan beharko luke Nafarroako hezkuntza sarearentzat, erabilera libreko argitalpen edukiak lehenetsita eta argitaletxeekin kontratuak eginda, ikastetxeetan erabiltzeko. Komenigarria izanen da online metodologiei buruzko prestakuntza ezartzea ikasturtearen hasieran irakasleentzat eta horiek ongi ezagutzen ez dituzten familientzat, gaixotasunaren gorakadarik gertatzen bada prest egoteko. Oso garrantzitsua da online hezkuntza egiteko behar diren baliabide teknologikoak ikasleen eta irakasleen eskura jartzea.
9. **Erabili beharreko materialekin eta objektuekin lotutako neurriak.** Horretarako, garrantzitsua da Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala kontuan hartzea, eta irakasleei irisgarritasun unibertsala garatuko duten materialak eta tresnak erabiltzeko aholkuak ematea, ikaskuntzen printzipio gidari gisa.
10. Aurreko ardatzekin zerikusirik ez duten eta egokitzen jotzen diren **beste neurri batzuk**; eta hezkuntza arloan ezarritako neurriak egokitzea osasun agintarietara edo neurriok legez ezartzeko eskumena duenak emandako gainerako neurrietara.
11. **Balizko konfinamendu egoera baterako lan plan bat egitearekin lotutako neurriak. Balizko konfinamendu egoera baterako lan plana.** Berrito konfinatu beharra sortuz gero, taldeak lehenestea, honako hauen arabera:
 - a. Aurrez aurre lan egin behar duten familien ikasleak.
 - b. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle bereziki kalteberak, hezkuntza-indargarria jasotzeko.



- c. Amaierako mailetako ikasleak: DBHko 4. maila, erdi eta goi mailako LHko 2. maila, Batxilergoko 2. maila eta Araubide Orokorreko Irakaskuntzetako azken maila.

D FASEA. Ebaluazioaren zeharkako fasea. Plan horrek jaso behar du etengabe eta aldizka ebaluatuko dela egoerak zer bilakaera duen hezkuntza testuinguru bakoitzean eta hartutako neurriak eraginkorrak ote diren, horiek emaitzen arabera egokitzeko.

Amaitzeko, gogoratu behar da kontziliazioa dela aurrez aurrekoa ez den sistema bat gauzatu ahal izateko gakoa, sistema horrek ahalegin handia eskatzen baitigu guztioi: administrazioa, enpresak, familiak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak eta, jakina, ikasleak.

Gakoa izan daiteke balio batzuk indartzea, adibidez, erantzukizuna, ahalegina eta talde-lana (guztiak batera).

Manuel Martín Iglesias

Nafarroako Eskola Kontseiluko burua